



## MAKILA ELEKTRONIKOETAKO MUNTAKETA

**Mugikorrek eta beste gailu elektronikoen gure poltsikora iritsi arte egiten duten bidaiarekin jarraituz, gailu horiek muntatzen diren enpresa edo tailerren errealitateari so egin behar diogu orain.**

Herrialde askotan daude muntaketa-enpresak (batik bat ingurumeneko eta laneko araudiak ahulak direnetan), baina Txinan dago horrelakoen kontzentrazio handiena. Sindikatuen Nazioarteko Konfederazioak argitaratutako azterketa bati erreparatu badiogu<sup>1</sup>, ikusiko dugu Txina 5. mailako herrialdetzat hartzen dela; horrek adierazi nahi du laneko eskubideak ez daudela bermatuta, zeren eta, legediak eskubide horietako batzuk onartzen dituen arren, langileek benetan ez dituzte eskubide horiek. Gainera, jardunbide autokratikoak eta bidegabeak jasan behar izaten dituzte lanean. Hain zuzen, Txinatik etortzen dira guk erabiltzen ditugun gailu elektronikoen asko eta asko: urtean 3.200 milioi<sup>2</sup> euro balioko esportazioak daude gurerako gailu elektriko eta elektronikoen.

Muntaketa-enpresa horiek "makila" edo "sweatshop" (ingelesez) izenez dira ezagunak, haietako lan-baldintza txarrak direla eta.

*Ohikoa da multinazional handiek enpresa horiek baliatzea, baina ohikoak dira, orobat, eskandaluak eta Mendebaldeko erakunde zibilaren eta tokiko sindikatu edo langile-taldeen salaketak. Salaketaren arrazoia era askotakoa izaten da: lanaldi amaigabeak, laneko baldintzak esklabotzara inguratzea, haurren esplotazioa, eskubide sindikalik ez izatea, eta baita lantegietan lan egiten duten emakumezkoen aurkako sexu-jazarpena ere (langile gehienak, gainera, emakumezkoak dira).*

Bestetik, datuek erakusten dutenez, langile horiek oso soldatak txikiak dituzte; Mexikoko CEREAL erakundearen txosten baten arabera, Mexikon mugikor baten salmenta-prezioaren % 1 baino ez da bideratzen gailua egin zuen pertsonari ordaintzeko.

Hizpide ditugun laneko baldintza txar horiek ondorio larriak eragiten ari zaizkie langileei: jasan behar izaten dituzten estresak eta presioak beren buruaz beste egitera eramaten dituzte. Foxconn-eko langile batek piztu zuen hedabideen interesa; langileak laugarren belaunaldiko iPhone-ren prototipo bat galdu zuen. Eskandalo haren ondorioz, Foxconn ikertu zuten eta enpresaren jardunbideak salaketa ugari jaso zituen. Hobetzeko neurriak ezarri baziren ere, sindikatuek zalantza jartzen dituzte haien ezartze-maila. Nabarmendu behar da Foxconn dela marka ugariaren hornitzaile eta ekoizle nagusia; besteak beste, hauena: Apple, Dell, Hewlett-Packard (HP), Motorola, Nintendo, Sony eta Nokia.

Publiko orokorarentzat agian ezagunagoak izango dira ehungintzako makiladoreak, "Ropa Limpia" moduko kanpainari esker edo gertakari batzuek izan zuten zabalbideari eta zalapartari esker (esaterako, Bangladesh-ko Rana Plaza bertan behera etorri zenean, edo 2014ko udan arropa-kate bateko etiketa batean gazte batek mezu bat aurkitu zuenean)<sup>3</sup>; baina gero eta pertsona gehiagok egiten dute bat agerian uzteko eta salatzeko makila elektronikoen diharduten langileen laneko baldintzak eta soldatak.

*Pertsona horien helburuak dira lantegi horietan lan egiten dutenen eskubideak hobetzea, langileek soldata duinak izatea, haurrek lan egitea galaraztea, eta laneko guneak egokitzea langileek ingurune duin eta segurua izan dezaten.*

<sup>1</sup> [http://www.ituc-csi.org/IMG/pdf/survey\\_ra\\_2014\\_eng.pdf](http://www.ituc-csi.org/IMG/pdf/survey_ra_2014_eng.pdf)

<sup>2</sup> [http://www.eldiario.es/economia/Espana-paises-respetan-derechos-laborales\\_0\\_296770922.html](http://www.eldiario.es/economia/Espana-paises-respetan-derechos-laborales_0_296770922.html)

<sup>3</sup> <http://www.ropalimpia.org/es/noticias/404/las-marcas-no-han-aportado-ni-la-mitad-del-fondo-para-las-v-ctimas-del-rana-plaza>

<sup>4</sup> <http://www.ropalimpia.org/es/noticias/399/respuesta-al-mensaje-en-la-etiqueta-de-primark>

# ARIKETA-PROPOSAMENA

## FILM LABURREN LEHIAKETA



**Helburua:** zuen ingurunean kanpaina bat martxan jartzea, muntaketa-enpresa elektronikoetako langileen laneko baldintzak aztertzeko.

**Materialak:** bideo-kamera duen mugikor bat, bideo-kamera bat, Interneteko konexioa.

⇒ **"I only wear sweat":**  
<https://www.youtube.com/watch?v=g50Vcktv9b4>

⇒ **"Gracias tercer mundo":**  
[https://www.youtube.com/watch?v=u0\\_EL9Yhd-g](https://www.youtube.com/watch?v=u0_EL9Yhd-g)

**Garapena:** fitxa irakurri eta bi bideoak ikusitakoan, proposatzen dizuegu film laburren lehiaketa bat egitea, muntaketa-enpresen gaiaren inguruan. Lehenik eta behin, lehiaketaren oinarriak ezarri behar dira, epeak, film laburraren iraupena, zehaztaperen teknikoak (halakorik badago), saririk badagoen eta zer den, nor osatuko duten epaimahaia, eta zer irizpide hartuko diren kontuan film labur garailea hautatzeko. Oinarriak idatzi ondoren, zabalkundea da hurrengo urratsak. Hirugarrena, berriz, gidoia egitea, zer eduki landuko diren pentsatzea eta bideoa grabatzea. Epaimahaiak erabakitzen duenean zein den film labur garailea, film labur guztien edo irabazleen emanaldi bat egin daiteke (film laburren kopuruaren arabera).

Beste aukera bat da taldekide guztien artean bideo edo film labur bat egitea, eta bildu dena aztertzea; era berean, horren emanaldia egin daiteke eremu publiko batean, herritarrek gai honi buruz kontzientziatzeko.

## INFORMAZIO GEHIAGO ESKURATZEKO BITARTEKOAK

 **Make it Fair:** <http://makeitfair.org>


 Webguneko jokoak: <http://makeitfair.org/en/take-action/flashgame>

 Galdetegiak:

<http://makeitfair.org/en/take-action/webquiz>

<http://makeitfair.org/webquest/>

 **CEREALek** eginiko **"Mexikoko industria elektronikoko lan baldintzak"** txostenak:  
<http://www.cerealgdl.org/index.php/es/informes/32-condiciones-laborales-electronica-mexico>

 **Good Electronics** webgunea:  
<http://goodelectronics.org/companies-en>  
<http://electronicswatch.org/es>

 **Emakumeen dokumentazio zentroko** txostena:  
<http://www.isis.cl/jspui/handle/123456789/27662>

 **Make it Fair** txostenak:  
[http://makeitfair.org/en/makeitfair-1/en/the-facts/reports?set\\_language=en](http://makeitfair.org/en/makeitfair-1/en/the-facts/reports?set_language=en)



-en proiektu bat



lortzeagatik